



Esp. zk. SUBV\_CONDIR\_NOM/2017/12

**DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA, OLENTZEROREN LAGUNEN ELKARTEARENDAKO. 2017**

**PARTE HARTZEN DUTE,**

Batetik, Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkari MAIDER BELOKI UNZU, Iruñeko Udalaren izenean eta haren ordezkari gisa, indarrean diren legeek eman dizkioten eskumenak erabilia.

Bestetik, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ ÁLAVA, 15763452B NAN zenbakiduna, OLENTZEROREN LAGUNEN ELKARTEAREN (aurrerantzean, pertsona edo entitate onuraduna) izenean eta haren ordezkari gisa, elkarteko jarduneko lehendakaria den aldetik.

Bi aldeek gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri hitzarmen honetan adierazitakoa betetzeko, eta horretarako,

**ondokoak ADIERAZI DITUZTE:**

Hitzarmen honen xedea da bideratzea indarrean den Iruñeko Udalaren Aurrekontuan ageri den diru-laguntza izenduna, eta ezartzea pertsona edo entitate onuradunak bere gain hartzen dituen baldintzak eta konpromisoak.

2017. urteko Iruñeko Udalaren Aurrekontu Orokorrean OLENTZEROREN LAGUNEN ELKARTEARI diru-laguntza izenduna ematea aurreikusi da.

Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 22.2 artikularekin bat, zuzenean eman ahalko dira toki-erakundeen aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak, hitzarmenetan eta diru-laguntza horien araubideetan ezarritakoarekin bat, eta lege horren 28. artikulua ezarritakoaren arabera, hitzarmenak izango dira diru-laguntza horiek bideratzeko ohiko tresnak.

Bestalde, Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 19. artikulua eta hurrengoek arautzen dute Udalaren aurrekontu orokorrean aurreikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean emateko araubidea eta prozedura.

Aipatu xedapenetan ezarritakoarekin bat, bi aldeek adierazten dute hitzarmen honen edukiaren berri dutela eta hura sinatuta hitzarmenetik eratorritako betebeharrak eta konpromisoak onartzen dituztela, honako klausula hauekin bat:

**KLAUSULAK**



### **LEHENA.- XEDEA.**

Hitzarmen honen xedea da zedarritzea Olentzeroren Lagunen Elkarteari diru-laguntza izenduna emateko kondizioak eta baldintzak, abenduaren 24ko Olentzeroren desfilea egite aldera.

Hala elkartearen izaera bereziak nola jardueraren interes publikoa zein kulturala erakusten duten arrazoiek justifikatzen dute lehia publikotik kanpo geratzea, bai eta hitzarmen hau bera ere, elkarteak Iruñeko milaka haur eta familia biltzen dituen ekitaldi herrikoi bat antolatzen baitu, Olentzeroren etorrera abenduaren 24an, alegia.

Esleitutako zenbatekoa gure hiriko kaleetan barna urtero egiten den Olentzeroren desfilea gauzatzeko erabiliko da, non parte hartzen baitute karroza, animalia eta musika-talde ugari (abesbatzak, zantantzarrak, txistulariak...).

### **BIGARRENA.- AURREIKUSITAKO JARDUKETAK ETA ALDEEK ONARTZEN DITUZTEN KONPROMISOAK.**

#### **1. Aurreikusitako jarduketak eta aldeek onartzen dituzten konpromisoak:**

Garatu beharreko jarduketak eta aldeek konpromisoak honako hauek izango dira:

2017ko abenduaren 24ko arratsaldean Olentzeroren desfilea egitea Iruñeko kaleetan barna, musikarekin, abesbatzekin, karrozekin, animaliekin eta Olentzeroren irudiarekin, bai eta ikusleentzako erakargarriak izan daitezkeen beste elementu batzuekin ere, betiere desfilearen espirituarekin bat baldin badatoz.

#### **2. Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak:**

- Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak orokorrak:

a) Diru-laguntzaren xede den helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo jarduteko modua hartzea.

b) Kasuan kasuko entitate laguntzaileak organo emailearen aurrean justifikatzea baldintzak eta betekizunak bete direla, bai eta jarduera egin dela eta diru-laguntza zertarako eman eta helburu hori bete dela ere.

c) Men egitea dagokion organo emaileak edo entitate laguntzaileak egin beharreko egiaztapen-jarduketei bai eta kontrol-organo eskudunek finantzaketa egiaztatzeko zein kontrolatzeko egiten ahal dituzten beste guztiei ere, betiere jarduketa horien ondorioz eskatzen dizkieten argibideak oro eman beharko dituztelarik, halakoak udal-agiritegietan jasota egon ezean.

d) Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari edo entitate laguntzaileari. Bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da jakinarazpen hori, eta betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa frogatu baino lehen.



e) Diru-laguntzetarako ebazpen-proposamena eman baino lehen egiaztatu beharra dute egunean dituztela hala tributu-betebeharrak nola Gizarte Segurantzarekikoak. Iruñeko Udalak ofizios egiaztatuko du berarekiko tributu-betebeharrak egunean dituztela.

f) Kontabilitate-liburuak, erregistro eginbidetuak eta gainerako agiriak edukitzea, behar bezala ikuskaturik pertsona edo entitate onuradunari kasuan-kasuan aplikatzen ahal zaizkion merkataritzako legeek eta lege sektorialek ezarritakoarekin bat, bai eta hitzarmen honek egiaztapen- eta kontrol-eskumenak modu egokian gauzatuko direla bermatzeko galdatzen ahal dituen egoera-orriak eta berariazko erregistroak ere.

g) Gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoak barne–, egiaztapen eta kontrol jarduketan xedea izan daitezkeen neurrian.

h) Behar bezalako publizitatea egitea, diru-laguntza jaso duten programak, jarduerak, inbertsioak edo edozein motatako jarduketak Iruñeko Udalak finantzatu dituela jakitera emate aldera:  BAI  EZ

Pertsona edo entitate onuradunak laguntza jaso izanaren berri emateko hartu behar dituen neurriak:

- Iruñeko Udalaren irudi instituzionala jartzea.
- Legendak karteletan, inprimatutako materialetan, bide elektronikoetan, ikus-entzunezkoetan eta abarretan.
- Oroitzapen-plakak.
- Aipamenak hedabideetan.
- Beste batzuk:

i) Jasotako funtsak itzultzea, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak, eta hala behar izatera, hitzarmen honek horretarako zein kasu adierazi eta halakoetan.

- Pertsona edo entitate onuradunaren berariazko betebeharrak:  BAI  EZ

Programatutako jardueren garapenaren ondorioz kalte edo lesiorik gertatuz gero pertsona, ondasun higiezin, ibilgailu eta abarretan, horien erantzukizun osoa bere gain hartuko du Olentzeroren Lagunak Elkarrekin, eta arrisku hori sinatutako erantzukizun zibileko 300.000 euroko aseguru polizarekin estaliko du, zeinak jarduerak iraun bitarte indarrean egon beharko baitu.

### **3. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen jarduerak egiteko epea:**

**Hitzarmen honi dagokion diruz lagundutako jarduera 2017ko abenduaren 24an gauzatuko da, arratsaldez.**

### **4. Proiektuan aldaketak egiteko aukera:** BAI EZ

BAI laukia markatu bada, aurreikusi gabeko inguruabarrak direla medio, aldaketak egiten ahalko dira proiektua gauzatzean, hasierako aurreikuspenei dagokienez, inguruabar horiek kontuan hartzekoak badira jarduera zuzen betetzeko eta aldaketa horiek ez badute eragiten funtsezko aldaketarik proiektuan, diru-laguntzaren xede den jardueraren izaera edo helburuez bezainbatean.



Proiektua gauzatzean aldaketak sartzeko, aldez aurretik diru-laguntza kudeatzen duen unitateak aldaketak baimendu beharko ditu, eta horretarako, pertsona edo entitate onuradunak eskaria aurkeztu beharko du, idatziz, proposatutako aldaketa egiteko beharra justifikatuz, aldaketak sartzeko beharraren berri izan bezain azkar eta, edonola ere, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen.

Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, zilegi izango da jasotako diru-laguntzak itzularaztea edo, hala badagokio, diru-laguntza kobratzeko eskubidea galtzea, osorik edo hein batean, proiektua garatzen den bitartean pertsona edo entitate onuradunak sartzen baditu aldez aurretik hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera baimendu gabeko aldaketak. Proiektuaren barruan hainbat jarduera independente baldin badaude, baldintza horrek soilik eragingo die baimenik gabeko aldaketak izan dituzten jarduerari.

Bestelako betekizun edota baldintzak:

#### **5. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:**

Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira diru-laguntzaren xede den jarduerarekin bat datozenak: desfileak eragindako gastuak (karrozen alokairua eta egokitzea, animalien kontratazioa, kaxetak, abesbatzak eta musikariak, etab.), desfilearen hedapena, erantzukizun zibileko aseguruia, desfilearen ezaugarriengatik hura modu egokian egiteko behar diren gastuak, eta dagozkion gastu orokorren parte proportzionala.

Egindako gastutzat hartuko da hitzarmen honen bosgarren klausulako 2. atalean ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

BAI     EZ

#### **HIRUGARRENA.- DIRU-LAGUNTZA ZEIN AURREKONTU-KREDITURI EGOZTEN ZAION, DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA, HALA BADAGOKIO, PROIEKTUAREN AURREKONTUAZ BEZAINBATEAN FUNTS PROPIOEKIN FINANTZATUTAKO EHUNEKOA.**

**1. Diru-laguntzaren zenbatekoa:** 15000

**2. Aurrekontu-partida:** 50/33401/482090

**3. Diruz lagundutako jardueren finantzaketa:**  BAI     EZ

Baiezkoan, adierazi zenbatekoa edo ehunekoa:

#### **LAUGARRENA.- PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.**

- Pertsona edo entitate eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeakoak:  BAI     EZ

Dena den, agiri horiek aurkeztuko dira iazkoekin alderatuta aldaketarik egon bada soilik, eta betiere bost urte pasa ez badira Iruñeko Udalean aurkeztu zirenetik.



- Erantzukizuneko aitortpena, non adieraziko baita pertsona edo entitate onuradunak onuradun izateko deialdi honetan galdatutako baldintzak betetzen dituela eta onuradun izaera hori lortzeko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikulua aipatzen dituen debeku-zioetako bakar batek ere ez duela ukitzen:  BAI  EZ

- Pertsona edo entitate onuradunak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, agiri hauek:

Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

Eskatzailearen erantzukizuneko aitortpena, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu horretan, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizios egiaztatuko du interesdunak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du.

- Adierazpen bat, bertan adierazita beste administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik dagoeneko jasotako diru-laguntzen zerrenda eta eskatutako kopurua, bertan zehaztuz entitateen izena eta jasotako zenbatekoa:  BAI  EZ

- Memoria bat, diru-laguntza zertarako eman eta proiektu, ekintza, jarrera, jarduera edo programa hori deskribatzen duena:  BAI  EZ

- Bestelako agiriak:

Abenduaren erdialdera 300.000 euroko estaldurako erantzukizun zibileko aseguruia aurkeztu beharko du, eta hori eguneratuta izanaren ordainagiria.

## **BOSGARRENA.- JUSTIFIKATZEKO ERAK ETA DAGOZKION AGIRIAK AURKEZTEKO EPEA.**

**1. Justifikatzeko modalitatea:** Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak eta lortu beharreko helburuak bete direla justifikatzea jarraian azalduko den era zehatzean egingo da. Justifikatzeko modalitatea zehazten ez bada, gastuen justifikazio-kontua aplikatuko da, gastuen ziurtagiria aurkeztuta.

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Diru-laguntzei buruzko Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukirik:  BAI  EZ

Justifikazio-kontu sinplifikatua.

1. Diru-laguntzaren xede diren jarduerak egin izana egiaztatzen duen jarduketa-memoria.
2. Jarduerak eragindako gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, non honako hauek identifikatuko baitira: hartzekoduna, agiria, zenbatekoa eta jaulkitze-data.
3. Jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerak edo diru-laguntzak xehe-mehe adierazita, horien zenbatekoa eta jatorria barne.



4. Laginketa-teknikak baliatuta, behar adina gastu-egiaztagiri eskatuko dira, eta haien bidez egiaztatuko da diru-laguntza manera egokian aplikatu den ala ez.
5. Iruñeko Udalak emandako diru-laguntzez bezainbatean egingo dituen egiaztapen- eta finantza-kontrol guztiei men egitea.

Gastuaren egiaztapena, moduluka (Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

Kontabilitate-orrien aurkezpena (Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistemaren bat:

**2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Klausula honetako 1. ataleko justifikazio-agiriak 2018ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira.**

#### **SEIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.**

Hitzarmen honek indarra izango du sinatzen den egunetik eta diruz lagundutako proiektua erabat justifikatu arte, hitzarmen honetan eta aplikagarri diren gainerako arauetan xedatutakoarekin bat. Hala ere, aipatu behar da finantzaketak barne hartzen duela 2017ko abenduaren 24an egindako jarduerara.

#### **ZAZPIGARRENA.- DIRU-LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA.**

Udalaren diru-laguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diru-laguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izango da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da jakinarazpen hori, eta betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa frogatu baino lehen.



Diru-laguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, hitzarmen honetan baimendutako kasuetatik at beste diru-iturri batzuk eskuratzen badira, diru-laguntza emateko ebazpena aldatzen ahalko da.

**ZORTZIGARRENA. AZPIKONTRATATZEA.**

Azpi kontratatzeko aukera:  BAI  EZ

Baiezkoan, adierazi ehunekoa eta baldintzak:

Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritako muga eta betekizunekin bat.

Pertsona edo entitate onuradunak inola ere ezin izango du hitzarmenik egin Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30.7 artikuluan zehazten diren pertsona eta entitateekin, diru-laguntzaren xede diren jarduerak osorik edo zati batean egiteko.

**BEDERATZIGARRENA. ORDAINKETA.**

**1. Nola ordaindu:**

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua: Iruñeko Udalak hitzartutako kopuruaren % 100 ordainduko dio entitate onuradunari ordainketa aurreratu gisa, hilabeteko gehieneko epean hitzarmena sinatu zenetik.

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zurreraren artekoa:

Ofizios kitatzen ahal izango dira pertsona edo entitate onuradunengandik kobratzeke dauden zorrak, diru-laguntza hori, osorik edo parte batean, zor dituzten kopuruarekin konpentsatuta.

BAI  EZ

**2. Bermeen eraketa:**  BAI  EZ

Baiezkoa bada, eratzeko modua eta zenbatekoa:

**HAMARGARRENA.- SEGIMENDU-MEKANISMOAK, HITZARMENA BETETZEN DENETZ  
EGIAZTATZE ALDERA:**  BAI  EZ

- Jarraipen-batzordea eratu da:  BAI  EZ

Baiezkoan, adierazi kideak:

- Beste mekanismo batzuk:

Jarraipena, Kultura eta Hezkuntza Alorreko teknikari baten aldetik.



**HAMAIKAGARRENA.- DIRUA ITZULARAZTEA.**

Zilegi izango da hala jasotako diru-laguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –diru-laguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean edo, halakorik balitz, hitzarmen honetan berariaz aurreikusi diren itzularazteko arrazoietako batek ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak:

BAI  EZ

**HAMABIGARRENA.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.**

Ez dago aukerarik hitzarmen honetan.

**HAMAHIRUGARRENA.-HITZARMENAREN ADMINISTRAZIO-IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.**

Hitzarmen hau honakoek arautuko dute: Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean jasotako aginduak, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legea eta aplikagarriak diren administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

Hitzarmen honek administrazio-izaera dauka, eta jarraipen-batzordeak hitzarmenaren interpretazio, aplikazio eta ondorioen inguruan konpontzen ez dituen auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenari zuzenduko zaizkio.

Eta gorago jasotako guztiarekin adostasuna erakusteko, agiri hau sinatzen dute, goian adierazitako lekuan eta datan.